

Thinking twice: Two minds in one brain

JONATHAN ST B. T. EVANS

New York: Oxford University Press, 2010, 240 or.*

Liburu hau eskuetan hartzean, irakurleak, segur aski, aurrena azalean jarriko du arreta. Hor, liburuaren izena, egilearen izena eta irudi bat aurkituko ditu. Hasteko, esan dezadan zer edo zer horietako bakoitzaz.

Thinking twice du izena liburuak. Badu, ordea, azpitolu bat ere. Zorionez, esango nuke nik. Hona azpitolua: *Two minds in one brain*. Liburuaz ari den hobeki adierazten digu honek izenburuak baino. “Think twice” esapidea oso erabilia da ingelesez, baina horren esanahia “bi aldiz pentsatzea” da, oso ongi pentsatzea, alegia. Eta liburuaz ez da horretaz ari. Liburuaren gaia honako hau da: inguruneak jartzen dizkion arazoei erantzuteko gizakiak bi era dituela, edo, nahiago bada, azpitoluak berak iradokitzen duen bezala, giza garunean bi gogamen¹ daudela, bata intuiziozkoa eta bestea go-goetazkoa.

Autorea Jonathan St B. T. Evans da, psikologo kognitibo gailenetakoa bere belaunaldian, eragin handia izan duena arrazoibidearen ikerkuntza psikologikoaren garapen nagusietan, 1970eko hamarkadan hasi eta orain arte. Aipatzekoak dira, Evansen ikerlanen artean, isuri edo alderakarga kognitiboek arrazoibidean eta erabaki-hartzean duten eraginari buruzkoak, baita eragin handia izan duten baldintzazko arrazoibidearen arloko bere lanak ere. Hemen, dena dela, aipamen berezia merezi dute giza kognizioaren azpian gertatzen omen diren prozesu dualei eskainitako lanek. Aurkeztera noan liburu honetaz gainera, badu autoreak beste bat, *Hypothetical thinking: Dual processes in reasoning and judgement*, 2007an argitara emana, aldizkari honetan aurkezpen labur bat eskaini zitzaiona (ikus *Gogoa* 8: 133). Eta beste lanik ere idatzi du —artikulu, elkarlanean egindako liburu eta abar— gai honetaz, erreferentzien atalean ikus daitekeenez.

Azkenik, azaleko irudia René Magritte pintorearen margolana da eta *La reproduction interdite* da horren izena. Gizon bat ikusten da hor bizkarrez eta

* [Liburu-kritika honen lehenagoko bertsioa hemen argitaratu zen, 2014an: *Gogoa* 12-13: 179-188].

¹ “Gogamen” hitza erabiliko dut ingelesezko “mind”en ordain gisa.

zutik ispilu baten aurrean. Ispiluak, ordea, gizonaren aurpegia ez, baizik horren doble bat islatzen du, bizkarrez ikusten dena berau ere. Zer nahi izan ote du autoreak liburuaren azalera irudi hori ekartzean? Liburuan ez du aipatu ere egiten. Litekeena da esanahi berezirik ez izatea eta irudi hori aukeratzeari, besterik gabe, pertsona beraren burua bi aldiz agertzen delako; liburuan honako hipotesi honen aldeko apustua egiten baita, hots, gizakion garuna bi gogamenen (bi bururen?) jabe dela. Beste asmo bat ere izan zezakeen, ordea, autoreak. Honek bi gogamenen hipotesia “herri-psikologia” delakoaren ikuspegiari kontrajartzen dio, azken horren arabera gizakiak gogamen bakarria izango bailuke. Magritteren lanari dagokionez, Marc Antoine Duhamel kritikariak honela dio: “ispilua margolanarekin lotzean, Magrittek zalantzan jartzen du horren fidagarritasuna: irudia faltsua da, nork bere buruaz duen irudia ere ezin da faltsua baizik izan”.² Zergatik ez pentsatu, orduan, ideia hau iradoki nahi izan diola autoreak irakurleari: zuk, “herri-psikologiaren” eraginez —hori baita, besterik ezean, baliatzen duguna—, gogamen bakarrean sinesten duzu, baina zure ustea okerra da? Dena dela, hobe izango da margolanaren kontu hau alde bat utzi eta berehala liburuan jorratzen den gaiari heltzea.

Zorigaiztoko gertakari bat kontatuz hasten da autorea berak bi gogamenen hipotesia deitzen duena aurkezten. Floridan (Estatu Batuetan) izan zen. Aita batek, goiz bero eta heze hartan, ohituraz kanpoko zerbait egin behar izan zuen: lanera bidean, haurra haurtzaindegira eramana. Haurrak lo hartu zuen automobilaren atzeko aldean. Aitari, laneko arazoek biziki kezkatzen baitzuten, ahaztu egin zitzaion erabat haurra han zegoela, eta Floridako eguzkitan utzi zuen autoa. Pare bat ordu geroago, gertatu zenaz konturatu eta ziztu bizian joan zen bere autora, baina beranduegi, zoritxarrez: haurra hilik zegoen. Eta horrelako kasuak ez dira, nonbait, uste izango genukeen bezain bakanak. Bestalde, ondorio hain larriak ez dituzten arreta-galtzeak maiz gertatzen dira, edo, hobeki esateko, maiz gertatzen zaizkigu.

Gertakari horietatik ondorio hau atera daitekeela uste du autoreak: giza gogamena, giza gogamen normala, zatitua dagoela. Bestela esateko, bi gogamen daudela garun bakarraren barnean. Ideia hori zentzu komunaren, edo “herri-psikologia” (*folk psychology*) delakoaren ikuspegiari kontrajartzen dio autoreak. Zentzu komunarentzat, izan ere, gogamen bakarria dago, ‘ni’ bat, erabakiak hartzen dituen eta jokabidearen kontrola daukana. Uste hori irudipen hutsa dela dio Evansek; honen arabera, ohartzeko arreta galtzen denean, ohiko jokabideak hartzen du kontrola. Arestian aipatu den kasuan, aitak, haurra autoan zeramala ahaztu baitzitzaion, haurtzaindegiko bidea hartu gabe, betiko bideari eutsi zion.

² [En associant le miroir à la toile, Magritte en questionne la fiabilité : l’image est fausse, l’image que l’on a de soi ne peut que l’être.] (Aipuen euskal itzulpenak nireak dira.)

Bi gogamen, beraz, ez bat. Bi gogamenen hipotesiaz hitz egiten du autoreak, berarentzat hipotesia baino gehiago dela badirudi ere. “Gogamen” hitza, bestalde, bi egiteko nagusi betetzen dituzten garuneko alderdiei dagokie hemen. Hona zein diren bi egiteko horiek: bizi garen mundu hori nolabait ere irudikatzea eta hor nola jokatu dugun erabakitzea.

Liburuan, gure jokabidearen kontrola dagokien garunaren goi-mailako funtzioetan jartzen da arreta. Hauetan, esaterako: ezagutzea, pentsatzea, erabakiak hartzea, arrazoitzea. Goi-mailako funtzio horien kontrola ez giza gogamen batek bakarrik, baizik bik daramatela da bertan egiten den baieztapena. Autorearen helburua baieztapen horren aldeko frogak biltzea da.

Badira hogeita hamar bat urte psikologoak hasi zirela iradokitzen gure garunaren lan egiteko modua bikoitza edo bi erakoa dela eta, horrela, “prozesu dualei” buruz hitz egiten hasi ziren. Psikologo kognitiboak batez ere, baina baita psikologo sozialak ere. Gero eta ikerketa gehiago egin dira gure ikaste, pentsatze, erabaki-hartze eta iritzi edo judizio sozialen benetako kausa izango liratekeen bi motatako prozesuak aztertu eta bereizi nahian.

Bi prozesu mota bereizi izan dituzte ikertzaileek: 1 mota eta 2 mota. Lehenbizikoa lasterra da, automatikoa, eta informazio pila handia prozesu dezake batean. Bigarrena, aldiz, geldia da, sekuentziala eta mugatua prozesatzeko gaitasunari dagokionez, baina, dirudienez, kontrol kontzientearen pean gertatzen da.

Bi gogamenen hipotesia ideia honetan oinarritzen da: 1 eta 2 motako prozesuen azpian guztiz desberdinak diren bi sistema kognitibo daudela. Hortik ateratzen den ondorioa da bi gogamen daudela garun bakarraren barnean. Gogamen horien izenak, Evansek ematen dizkienak noski, honako hauek dira: gogoetazko gogamena eta intuiziozko gogamena. Autorearen arabera, aurrenekoak kontrolatzen ditu, bai, gure jokabide batzuk, baina herri-psikologiak pentsaraziko ligukeen baino askoz gutxiago. Egiten dugun gehiena eta hartzen ditugun erabaki gehienak intuiziozko gogamenak kontrolatuko lituzke, hor gertatzen diren prozesu kognitiboez gu batere ohartu gabe. Ikuskera hau zentzu komunaren ereduari kontrajartzen zaio, Evansek nagusi betearazle edo exekutiboaren ereduak deitzen duenari: horrek gogamena erabakiak hartzen eta aginduak ematen dituen nagusi betearazle moduan ikusiko luke. Hori, neurri handi batean, ez omen da irudipena besterik.

Bi gogamenen hipotesiak dioena egia izatera, hau da, garunaren barnean bi sistema desberdin ditugula ezagutzeko, pentsatzeko eta jokatzeko, orduan badirudi arrazoizkoa dela pentsatzea, autoreak egiten duen bezala, gogamen horietako bakoitzak bere eskualde edo eremu berezia izango duela garunean, bestearenetik neurologikoki ezberdina. Eboluzioaren aldetik ere egon beharko luke gauzak nola gertatu diren azaltzeko modu konbentzigarririk. Intuiziozkoa zaharra dela esan ohi da, eta animalien ezaugarria, gizakia barne noski; gogoetazkoa, aldiz, duela gutxiagokoa eta soilik —edo behintzat oso bere-

ziki— gizakiari dagokiona. Liburuan, bi gogamenen hipotesiak eboluzioan izan ditzakeen oinarriei eskaintzen zaie 2. kapitulua. Nolanahi ere, hipotesiaren aldeko frogak gehienak psikologia esperimentaletik datozela dio autoreak.

Froga esperimentalei dagokienez, bi sailetan banatzen ditu autoreak: psikologia kognitibotik datozenak, batetik, eta psikologia sozialetik datozenak, bestetik. Lehenbizikoen artean daude, adibidez, ikasteko eta oroitzeko sistema ezberdinen aldeko frogak, 3. kapituluan eztabaidatzen direnak, edo arrazoitzeko eta erabakiak hartzeko moduek gizabanakoen baitan sortzen duten gatazkari dagozkionak, 4. eta 5. kapituluetan aztertzen direnak. Psikologia sozialaren arloan, bi gogamenen hipotesia sendotzera datozen honako aurkikuntza hauek aipatzen ditu autoreak: litekeena dela, batetik, jendeak jarrera eta estereotipo inplizituak edukitzea bere iritzi kontzienteeekin bat ez datozenak eta, bestetik, tutik ere ez jakitea jendeak bere jokabidearen arrazoiei buruz (6. eta 7. kapituluak eskaintzen zaizkie).

Liburuaren bigarren kapitulua, esan den bezala, bi gogamenen hipotesiak eboluzioan dituen oinarriei eskainia dago. Hipotesiari dagokienez, autorearen argudioa da gogamen berria, gogoetazkoa eta gizakiaren ezaugarri dena, paraleloa, lasterra eta automatikoa den gogamen zaharrago bati erantsi zaiola eboluzioz. Azken hori zaharragoa izanik, ez da batere harritzekoa bereziki lotua egotea animalien kognizioari. Giza gogamen modernoaren eboluzioan eragin handiagoa izan du kulturak biologiak baino. Hizkuntzaren eta adimen sozialaren eragina azpimarratzen du autoreak. Aipatzekoa da, liburuan egiten den bezala, gizakiak, ingurunera egokitzeke eboluzionatzeaz gainera, ingurunea modu nabarmenean diseinatu duela berari komeni zaion bezala, eta gu garelako hori egin dugun espezie bakarra. Zergatik diren gauzak horrela ulertzeko honako hau da kontuan hartzekoa: gogamen zaharra, intuiziozkoa, kanpotik iristen diren estimuluen kontrolpean dago, bizkor erantzuten dielarik haiei; gure kasuan, goi-mailako kontrol mota bat ere badago, gogamen berriaren baitako pentsamendu kontziente eta nahimenezkoari dagokiona. Hori dela eta, autorearen galdera da ea garunean frogarik aurki dezakegun bi gogamenen hipotesiaren alde. Izan ere, bi gogamenen gaitasunak ezberdinak badira, espero izatekoa da gaitasun horiei dagozkien kokaleku neurologikoak ere ezberdinak izatea. Bestetik, arrazoizkoa dirudi gogamen berriari aitortzen zaizkion funtzioak kokatzea duela gutxi eboluzionatu duten garun-aldeetan. Berriekin eboluzionatu duen garuneko alderdia lobulu frontalak dira; horiek, hortaz, lotura berezia beharko lukete izan gogamen berriarekin. Bada, lobulu frontalen egiteko buruzko ikerketek gehienez bi gogamenen hipotesiaren aldeko frogak eskaintzen omen dituzte: hala dio Evansek.

Bi gogamen, hortaz. Gogoetazko gogamenari zor zaio gure espeziearen berezitasuna eta singularitasuna. Baina intuiziozko gogamen zahar eta lasterrek hor dirau. Horrek esan nahi du guk jakiteko bi era dauzkagula, erabakiak hartzeko bi era eta munduan jokatzeko bi era.

Beraz, jakiteko modu bakarra ez, baizik bi modu ditugu. Modu bat da “jakitea zer” (edo “jakitea *-la*”), adibidez jakitea gaur ostirala dela; beste modu bat, oso bestelakoa, “jakitea *nola*” da (edo “jakitea *-t(z)en*”), pianoa jotzen jakitea esaterako. Aurreneko jakiteko moduari dagokionez, ezaguera batzuk psikologoek *semantikoa* deitzen duten oroimenean daude jasota (Frantziako hiriburua Paris dela badakit, adibidez, baina ez dakit noiz ikasi nuen hori); beste batzuk, aldiz, *episodikoa* esaten dioten oroimenean daude jasota (gogoratzen dut noiz, nola eta norekin joan nintzen Parisera). Bi oroimen mota horiek ezberdinak dira, baina biak dira *esplizituak*, hau da, gogora ekar daitezke, baita gogoan erabili ere kontzienteki. Gauzak oso bestela dira “jakitea *nola*” erako ezaguerekin: *implizituak* dira funtsean eta ezin dira zuzenean ekarri gogoetazko gogamenera. Intuiziozko gogamenari ala gogoetazkoari eusten dioten, ikaste- eta oroimen-sistemak implizitu edo esplizitu bezala sailkatu ahal izatea funtsezkotzat jotzen du autoreak. Horren arabera, implizitu/esplizitu bereizketa erabakigarria da bi gogamen ditugulako baieztapenarentzat. Liburuaren 3. kapituluan ikastearen eta oroimenaren arloko esperimentu eta ikerketa neuropsikologikoez eskaintzen dituzten froga indartsuak irakur daitezke.

Erabakiak hartzeko bi moduez ari da 4. kapitulua. Gai nagusia da hau bi gogamenen hipotesiarentzat Evansen iritziz. Dena dela, hemen ez ditu kontuan hartzen erabaki bat hartzen ari garela badakigun egoerak baizik. Horrek, hala ere, ez du esan nahi erabakiak gogoetazko gogamenak hartzen dituenik; bakar-bakarrik esan nahi du hori tartean dabilela. Eta hori tartean dabiltzanean, erabakia geldiro eta ahaleginduz hartzen da. Eta orduan ere azken hitza ez du nahitaz berak izango. Bai intuizioak bai gogoetak, biek dute rol garrantzitsua gure erabakietan. Kontua, ordea, nagusitasuna zeini aitortzen zaion da. Erabakiak arrazionalki hartzen ote ditugu, erabaki-hartze arrazionalaren teoriak nahiko lukeen bezala? Froga gutxi dago, ordea, ikuspegi horren alde. Erabaki bat hartu behar dugunean, nekez jartzen gara dauden aukera guztiak aztertzen. Erabakien ondorioak kalkulatzeko gogoetazko gogamena erabili beharko genuke, baina gogamen hori oso mugatua da aurre egin diezaiokeen informazio kopuruari dagokionez. Hortik dator aukerak banan-banan aztertzeko dugun joera. Eta, autorearen iritziz, handia izan daiteke intuiziozko gogamenaren eragina arreta zertan ipini erabakitzerakoan.

Filosofiaren historian arrazionaltasuna arrazoibide logikoarekin eta gogoetarekin lotu ohi da eskuarki eta emozioetan oinarritutako erabakiak gaitzestera jo ohi da. Literatura psikologikoan ere bada ikuspegi bat ildo beretik doana: izan ere, beharrezkotzat jotzen du gogoeta kontzientea erabaki onak hartzeko, eta intuizioak isuri kognitiboak eta hutsegiteak dakartzala uste du. Azkenaldi honetan, hala ere, ospe hobea ari da lortzen intuiziozko gogamena, autoreak “gogamenik ez” ikuspegia (*the “no-mind” position*) deitzen duenaren eskutik bereziki. Ikuspegi honen arabera, hobeki joango litzazkiguke gauzak arrazoitzeari utzi eta gehiago fidatuko bagina geure bihozka-

tan. Egia, ordea, bi muturren artean dagoela uste du Evansek. Intuizioan oinarrizko batzuetan eragin ditzake erabaki onak, baina hori gehienez gerta daiteke adituek, edo arlo jakin batean esperientzia dutenek, hartzen dituzten erabakietan. Erabaki-hartzeari dagokiona bukatzeko, noiz oinarritu intuizioan eta noiz gogoetan? Hona zer dioen Evansek intuizioaren alde: “erabaki-hartze lasterra, intuizioan oinarritua, izan daiteke gogoetazko arrazoibidea baino hobea, baina bakarrik esperientzia handia badugu kasuan kasuko arazoan”³ (104. or.). Eta gogoetaren alde: “Erabaki batzuk ezin dira hartu frogak gogoetazko gogamenaren bidez geldiro eta arretaz aztertu ondoren baizik”⁴ (105. or.).

“Reasoning and imagination” (arrazoibidea eta irudimena) da 5. kapituluaren izenburua. Irudimena zer dela eta sartzen duen hemen aise ulertuko du irakurleak kontuan hartzen badu autoreak dioena, hots, erabaki batzuk iraganean ikasi eta ikusitakoan oinarrituz hartzen baditugu ere, intuizioaz baliatuz alegia, beste batzuk gure ekintzen ondorioak irudikatuz hartzen ditugula. Hori dela eta, kapituluaren atal batzuk “*if*” —(baldin) ba— junta-gailuari eta baldintzako perpausei eskaintzen zaizkie. Arrazoibidea esatean zera esan nahi da: informazio jakin batetik ondorioak ateratzeko egiten den ahalegin kontzientea. Horrela definituta, bistan da arrazoibidean zerikusia duela gogoetazko gogamenak. Zerikusia izateak, ordea, ez du esan nahi nahi-taez berak agintzen duenik hor. Autoreak berehala ohartarazten duenez, intuiziozko gogamena beti dago presente arrazoitze-prozesuan. Nolanahi ere, arrazoibide esplizitua gogoetazko gogamenaren arloa da eta gogoeta horren funtzio nagusietakoa. Ez da harriztekoa, horregatik, arrazoibide-problema hobeki ebaztea eskuarki adimen orokor garaia dutenek. Kapituluaren zehar Evansek erakusten duenez, ordea, adimenaren eta arrazoibidearen arteko lotura horretan gorabeherak daude. Intuiziozko gogamena zenbaitetan lagungarri gerta dakiguke, batez ere alde aurretik esperientzia dugunean arrazoitu behar dugun gaiari dagokionez. Baina, Evansek berak dioenez, intuizioa lagun faltua da, aldakorra. Esate baterako, sinestean alderako isuriak eragin ditzake, hau da, uste dugunaren edo dakigunaren arabera ondorioa ontzat ematea ala ez, premisetan esaten dena kontuan izan gabe. Sinestean alderako isuria garrantzirik handienekotzat dauka autoreak bi gogamenen hipotesiarentzat. Izan ere, jendeak, intuiziozko gogamenak eraginda, ondorioa sinetsgarria den ala ez hartuko luke kontuan, ez logikoa den ala ez.

Honaino psikologia kognitiboan sartzen diren gaiez aritu gara. Psikologia kognitiboari prozesu kognitiboak dagozkio, hau da, ezagutza edo informazioa eskuratzean edo hori prozesatu eta erabiltzean esku hartzen duten

³ [So fast decision making, on the basis of intuition, may be superior to reflective reasoning, but only if we have had a lot of relevant experience.]

⁴ [Some decisions can only be made well by slow and careful study of the evidence with the reflective mind.]

buru-prozesuak. Liburuaren 6. kapituluak psikologia kognitiboaren ikerketa-arlotik ongi bereizten den arlo bat aztertzen du: psikologia sozialaren arloa. Psikologia sozialak gizakia soziala edo gizartekoa den aldetik aztertzen du. Hortik segitzen da psikologia soziala herri-psikologiari axola zaizkion gai berez ari dela. Adibidez, denok ditugu besteen uste, jarrera eta motiboei buruzko usteak. Horren ondorioz, handiagoa izan daiteke zentzu komunaren eragina psikologia sozialean beste arlo batzuetan baino. 1980ko hamarkada arte gutxi gorabehera, nahiko zabaldua zegoen uste hau, hots, jendeak bere jokabide soziala kontrolatzen zuten usteak zeuzkala. Urte horietatik aurrera, ordea, autoreak dioenez, pilatuz joan ziren ikuspegi horren kontrako frogak. Horrela, ez gaude gure jokabide sozialaren oinarrian dagoenaren jakinaren gainean eta, noski, ez dugu hori kontzienteki kontrolatzen. Eta azkeneko 20 urte hauetan edo, prozesu dualeko teoria pila bat sortu omen da psikologia sozialean. Fenomeno sorta handia aztertu da, hala nola inpresioen eratzeta, jarrerak, estereotipoak, aurreiritziak, pertsuasioa eta jarreraz aldatzea, identitate soziala, eta abar. Eta sail horietan guztietan, autorearen arabera, bi gogamenen hipotesiaren aldeko frogak aurkitu dira.

Liburuak baditu oraindik beste bi kapitulu ere, ez bi gogamenen hipotesiaren aldeko frogei, baizik hipotesi horri bidean jartzen zaizkion hainbat galdera eta arazori eskainiak. Bi kapitulu horietatik lehenak, liburuaren zazpigarrenak, "Consciousness and control" (Kontzientzia eta kontrola) du izenburua. Nola ulertu kontzientzia eta nola ulertu kontzientziaren eta bi gogamenetako bakoitzaren arteko harremana? Autoreak bi kontzientzia mota bereizten ditu: gogoetazko kontzientzia eta kontzientzia fenomenala. Lehenbizikoa pentsamendu kontzienteari dagokio eta honek adierazten du informazioa era aktiboan manipulatzeko delat; kontzientzia fenomenalak, aldiz, ez du informazioa sumatu edo hauteman besterik egiten. Bi kontzientzia mota horiek bereizteak aukera ematen dio autoreari prozesu dualen teoria gehienek egiten duten prozesu kontzienteen eta inkontzienteen arteko bereizketa kritikatzeko. Teoria horiek, Evansek gogoetazko gogamena deitzen duenari ekintza kontziente, intentzional eta kontrolatuak izendatzen dizkiote maiz; intuiziozko gogamenaren funtzionamendua, aldiz, inkontziente eta automatikotzat daukate. Evans ez dator bat teoria horien ikuspegiarekin, berak uste baitu bi gogamenek dituztela alderdi kontzienteak eta alderdi inkontzienteak. Animaliek ere izango lukete kontzientzia moduren bat, Evansek kontzientzia fenomenala deitzen duena hain zuzen ere. Gizakiok, gainera, gogoetazko kontzientzia izango genuke, sentitzeko ez ezik pentsatzeko gaitasuna. Gorago ezaguera inplizituak eta esplizituak bereizi dira. Bada, bide ezberdinetatik eskuratzen ditugu horiek eta inplizituetara iristen gara intuiziozko judizioak egiten ditugunean, eta esplizituetara erabaki arrazoituak egiten ditugunean. Baina, berriz azpimarratzen du Evansek, intuiziozko erabakiak ez dira erabaki inkontzienteak; kontua da sentimenduan daudela oinarrituak, ez gogoetan. Kapituluak bada gai bat aski eztabaidagarria, nik uste.

Esate baterako, asmo kontzientearen ilusioarena: zerbait nahi izan dugulako egin dugulako esperientzia gure ekintza intenzionalen *ondorio* izango omen litzateke, ez horien kausa. Horren kontrako ustea faltsua izango litzateke, gure garunak sortzen duen uste faltsua, konbentzigarria gertatzen bazaigu ere. Gai hau dela eta, Daniel Wegnerren (2002) *The illusion of conscious will* eta Libeten (1999) esperimentu ezagunak aipatzen ditu. Horietaz gehiago jakin nahi duenak jo dezake, aldizkari honetan bertan (Huizi 2011: 87-94) argitara emandako *Are we free?* liburuaren kritikara. Dena dela, ezin ditut hona ekarri gabe utzi liburuan, 181. orrialdean, irakur daitezkeen esaldi hauek:

Geure ekintzak guk geuk nahi izan ditugula edo gu geu ari garela kontrolatzen uste izatea ilusio bat da: gure edozein esperientzia alde zurreko garun-jardueraren ondorio da, garun-jarduera horrek abiara-ziak baititu jada gure “erabaki kontzienteak”. Gu, pertsona kontzienteak, gure garunen eraikuntza gara. Egiatan ezin gara besterik izan.⁵

Baina 177. orrialdean autoreak egiten duen oharpenak ere merezi du hemen aipatzea:

Zientzialaria naizen aldetik, gauza hauek pentsatzen ditut eta idazten horien aldeko frogak erabatekoak baitira. Pertsona naizen aldetik, herri-psikologiaren munduan bizi naiz, gainerako guztiak bezala. Ez noa hortik pentsatuz, “Ez nuen nik erabaki, nire garunak erabaki zuen”. Nolanahi ere, bereizketa faltsua da. Ez da inolako “Ni”rik nire garunetik bereizirik dagoenik. Pertsona naizen aldetik, nik hartzen ditut erabakiak.⁶

Ez dakit, baina hain erabatekoak ote dira Evansen pentsaeraren aldeko frogak? Ez dut uste zientzialari guztiak bat etorriko lireratekeenik horretan. Ikus, bestela, goraxeago aipatu dudana liburuaren kritika. Kontu hau dela eta, bestalde, interesik handienekoa den liburu bat ere aipatu nahi dut hemen. Liburuaren izena *Who's in charge?* (2011) da eta horren egilea neurozientzia kognitiboaren aita den Michael Gazzaniga. Hau ez da, inondik ere, Evansen irizkide.

Azkeneko kapituluaren gaia bi gogamenen artean sortzen diren gatazkak eta bien arteko lankidetzeta edo elkarlana dira. Bi gogamenak zergatik ari diren batzuetan elkarlanean eta beste batzuetan elkarren kontra ulertzeko, arrazio-

⁵ [The feeling that we are willing or controlling our actions is an illusion: everything that we experience is a result of prior brain activity, which has already initiated our “conscious decisions”. We, conscious persons, are a construction of our brains. There really is nothing else that we could be.]

⁶ [As a scientist, I think and write these things because the evidence for them is overwhelming. As a person, I live in the world of folk psychology just like everyone else. I don't go around thinking, 'I didn't really decide that, my brain did.' In any case, it is a false distinction. There is no 'I' that is separate from my brain. As an individual, I do make decisions.]

naltasunaren gaiari heldu behar zaiola uste du autoreak eta bi arrazionaltasun modu bereizi behar direla. Filosofian eta literaturan tradizio luzea du arrazional eta emozional hitzak elkarren aurrez aurre jartzeko joerak, eta horren eragina nabarmena izan da psikologian ere. Joera horren eraginez, emozioak irrazionaltatzat hartzea jo izan da. Ikuspegi horren kontra, autoreak iradokitzen du emoziorik gabe ez dagoela arrazionaltasunik. Arrazionaltasunari dagokionez, bestalde, gogamen zaharraren arrazionaltasuna eta gogamen berriaren arrazionaltasuna bereizten ditu. Gogamen zaharraren arrazionaltasuna geneena da funtsean, eta ez banakoarena. Gogamen berriaren arrazionaltasuna, aldiz, ez dago gure geneen zerbitzura, baizik guk pertsona garen aldetik ditugun helburuen zerbitzura. Gogamen zaharraren arrazionaltasunak lehena du eragile, gogamen berriarenak, aldiz, geroa. Helburuak lortzeko moduak ezberdinak direnez, sor daiteke gatazkarik bien artean. Horrelako gatazken adibide gisa, joko patologikoa eta fobiak aztertzen ditu hemen autoreak. Dena dela, elkarlana ere egiten dute. Beharko egin, gainera, bakoitzaren ezaugarriak direla eta. Intuiziozko gogamena ohikoa denaz arduratzen da eta gogoetazkoa berria denaz. Azken hori edukiera apalekoa da, aldi bakoitzean ezin baitu arreta ipini gai batean baizik, eta ondorioz behartua dago errutinazko lanak besteari uztera. Intuiziozko gogamena, bere aldetik, ahalmen handikoa da, lasterra eta edukiera handikoa denez, baina lagun faltsua ere izan daiteke. Lankidetzari dagokionez, trebetasun bat eskuratzea eta pentsamendu eta arrazoibide eraginkorra jartzen ditu adibide moduan. Zerbaitetan trebe bihurtzeko, hasieran beharrezkoa da kontrol kontzientea, gogoetazko gogamenaren lana dena, baina, zenbat eta urrats gehiago egin trebetasuna hartzen, orduan eta libreago gelditzen da arreta kontzientea beste zeregin batzuetarako. Pentsamendua eta arrazoibidea eraginkorrak izango badira ere, bi gogamenak elkarrekin aritzea beharrezkotzat jotzen du autoreak. Adibide gisa, Johnson-Lairden (Johnson-Laird eta Byrne 1991) "gogo-ereduen teoria" aipatzen du; teoria horren arabera, arrazoibidea ikertzeko jartzen diren problemetan parte-hartzaileek aurrena premisen eredu bat sortzen dute buruan era automatikoan, intuiziozko gogamenaren lana dena, eta gero kontrako adibideak aztertzea jotzen dute, gogoetazko gogamena lanean jarritz.

Zortzi kapituluaren ondoren, autoreak "Addendum" delako bat erantsi du, liburuaren testu nagusian sartu nahi izan ez dituen gai edo arazo tekniko batzuei eskainia. Honako hauei, adibidez: prozesatze-moduez ala prozesatze-tipoez hitz egin behar den, prozesu dualeko teoriak zenbat motatakoak diren, zergatik nahiago gogamenez hitz egin eta ez sistemez.

Irakurleak liburuan zer aurki dezakeen azaltzen saiatu naiz honaino. Bukatu baino lehen, bidezkoa da esatea zergatik merezi duen liburua irakurtzea. Egilearen burupea eta ospea aipatuko dut aurrena. Lan honen hasieran esan dudana bezala, psikologo kognitibo gailenetakoa da bera. Bestalde, hemen jorratzen duen gaia, prozesu dualeko teoriarena, aspalditik lantzen ari den gaia da; badaki, hortaz, zertaz ari den. Gaia, gainera, giza gogamenak nola lan

egiten duen, edonorentzat da interes handikoa, ez filosofo eta psikologoen-
tzat bakarrik. Azkenik, liburuaren atzeko azalean bi aditu handik, bata psiko-
logoa eta bestea filosofoa, egia esan autorearen lagunak eta lankideak biak,
iritzi ezin aldekoagoa ematen digute. Psikologoak, esate baterako, aholku
hau ematen dio psikologian emankorrenetakoa omen den metateoriaren be-
rri jakin duenari: ez dadila gehiago bila ibil.

Pello Huizi

ILCLI (UPV/EHU)

Erreferentziak

- BAER, J., J. C. KAUFMAN eta R. F. BAUMEISTER (arg.). 2008. *Are we free?: Psychology and free will*. New York: Oxford University Press.
- DUHAMEL, M-A. 2002. <http://www.webbynerd.com/artifice/dossierarchi-ves/114.htm>
- GAZZANIGA, M. S. 2011. *Who's in charge? Free will and the science of the brain*. New York: HarperCollins.
- HUIZI, P. 2011. "Are we free? Psychology and Free Will (John Baer, James C. Kaufman & Roy F. Baumeister, arg.)". *Gogoa* 11 (1): 87-94.
- JOHNSON-LAIRD, P. N. eta R. M. J. BYRNE. 1991. *Deduction*. Hove and London: Erlbaum.
- LIBET, B. 1999. "Do we have free will?". *Journal of Consciousness Studies* 6: 47-57.
- WEGNER, D. M. 2002. *The illusion of conscious will*. Cambridge, MA: MIT books.